

UGARTE.—Linazasoro-ren *La otra Guipúzcoa*-ren 141 horrialdean irakurtzen da: «En euskera, Ugarte significa Isla.» Behar bada izan zitekean itsas erdian edo ibai baten erdian urez inguratutik balego. Beintzat, hori da erderazkoaren zentzuna. Baina euskaldunok, *ugarte* hitza, ez dut uste erderazko *isla*-ren izate justuan erabiltzen dugunik. *Ugarte*, *uharte*, *huarte*, toki-izenak ugari dira Euskal Herriaren zabalean; baina nik personalki ezagutzen ditudanak, Amezketa-koa bera ere tartean delarik, bi ibai edo errekaen tartean dauden hauzo edo baserriak dute izen hori. Eta erderazko zentzunera itzuli behar banuke, *entrambasaguas* edo holako zerbait egokiagoa arkituko nuke.

Era honetako zerbait dala, Ugarte, argi dago Mitxelena-ren *Apellidos vascos*-en ere. Ikusi 1953-ko argitaraldiaren 47 eta 103 horrialdeak.

Euskal deituretan ere, «euskalari» edo «etimolójilari» artean ere bada holako nahasmendurik aski. Aipatu dugun Mitxelenaren liburuaren ondorean argitaratuak dira beste zenbait liburu gai berean, eta ez dirudi aurreak erakusten digunik atzea zelan dantza; zeren kontu honetan, oraindik, Mitxelenarena da ganorazko bakarra. Gainerakoak ez dute balio deusik.

J. S. M.

ICHASO, ITSATSO.—Etimolójia kontuan sartu geralarik, berriz ere, beste ohar bat gaineratu nahi diot Iñaki Linazasoro adiskideari. Behar bada, gizon humeretsua danez, uste dut adarra jotzen ari dela etimolójia kontuan. *La otra Guipúzcoa*-ren 22-gn. horrialdean dakar: «Ichaso, trae en jaque a los etimologistas.» Bai ote? Erderazko «retama» eta «mar», nahastuko balira bezala.

Baina, aspadidanik, honetan ez dago nahasterik, eta iturri onetara jo ezkerreko *isats*, naiz *itsa(t)s* (eta hemen ez dago ahozko deformaziorik, berak hala uste badu ere); hoiiek sustar berekoak dirala badakigu; erderazko «retama», besterik ez. Dakus arestian aipatutako L. Mitxelena-ren *Apellidos vascos*, 75-gn. hor. (337 du artíkulu numerua).

Herri jakintzak berak erakusten du, iturri onetik edatea osasungarria dala. Eta inun ez da joaten herririk bada-etzbadako iturritik asezera.

JUAN SAN MARTIN.

GARCIA LORCAREN AZKENENGO ORDUAK.—Ez dot irakurri Marcelle Auclair idazleak argitaratu dabean *Enfance et mort*